



Markinako frontea

Markinako eta Xemeingo egoera
politikoa eta soziala Bigarren
Errepublikan eta Gerra Zibilean
(1931-1939)

Patxi Juaristi Larrinaga

Jakintza-arloa / CDU:

Historia (946.015)

ISBN: 978-84-9860-583-9

17 x 24 cm.

348 orr.

PSP: 18,00 €

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Argitalpen Zerbitzua

1.397 posta-kutxatila

48080 BILBAO

Tfnoa.: 946 012 000

Faxa: 946 012 333

e-posta: editorial@ehu.es

<http://www.argitalpenak.ehu.es>

Banatzailea:

ELKAR Banaketa

Portuetxe, 88

20018 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Tfnoa.: 943 311 821

Faxa: 943 310 453 / 943 310 452

e-posta: eskaerak@elkar.com

<http://www.elkar.com>

1936ko irailetik 1937ko apirilera, guda larria geldirik egon zen Markina-Xemeingo lurretan, eta herritarrek eraso bortitz ugari jasan behar izan zituzten. Gainera, behin erreketek herrian sartu eta gero, errepresio ba-satia hasi zuten abertzaleen eta ezkertiarren aurka. Zaharren artean, Gerra Zibileko oroitzapenak oso in-dartsuak dira. Hala ere, agintari frankisten alderako beldurrak, galtzaile izatearen lotsak, momentu mingarri guztiak bizkor ahanzteko gogoak, edota seme-alabei galtzaile sentimendua ekidin nahiak belaunaldien arte-ko transmisioa oztopatu zuten. Bestalde, irabazleek ez zuten nahi memoria historikoa askorik jorratzea, lot-satzeko moduko ekintzen erantzule zirelako. Ondorioz, gerra ostean jaiotako gutxiak izan dute gertatu zena-ren ideia argi bat.

Gizarte batzuetan, gerren oroitzak oso ondo gorde da. Euskal Herrian, Gerra Zibila oro har lantzen duten la-nak egin dira, baina, nire ustez, herriz herri gertatu zena ez da behar bezala ikertu, eta belaunaldi berriok gutxi jaso dugu gure hurbilekoei gertatukoari buruz. Liburu honek hutsune hau betetzen lagundu nahiko luke.

Gerrak sortutako samina berreraikitzeak eta kontatzeak ez du biktimen sufrikarioa arintzen, baina bizi izan zutena ulertzen laguntzen digu besteoi, elkartasun sareak sendotzen ditu belaunaldien artean, eta etorkizune-an saihestu behar den bidea erakusten; herritar jakintsuagoak, irizpide sendoagoak eta, ondorioz, askeago-ak ere sortzen ditu.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL